

## Piano doinuak nagusituko dira asteburuan

Egoera epidemiologikoaren zain izan dira, eta azkenean Andoaingo Piano Jaialdiko antolatzaileek aurrera egitea erabaki dute / 2-3



**Zinema, musika, tailerra... Ekitaldi sorta iragarri dute Urnietan, martxoaren 1etik 8ra.** / 9



**Andoaingo Udalak eta eragile ezberdinek martxoaren 8ko egitaraua aurkeztu dute** / 8-9



**"Pausoz Pauso" ekimenaren X. edizioa izango zena kultur ekitaldi bilakatuko da** / 8



**Dadai Sabaut Andoainen bizi den Saharako herrikideari elkarrizketa** / 16



**Andoaingo Sarek elkarretaratzea deitu du ostiral honetarako, Zumea plazan** / 14

**Trasteleku eta biltegi txikien alokairua Urnietan**

TRASTELEKUAK MP BATETIK AURRERA  
ENPRESENTZAKO BILTEGI HANDIAGOAK  
ALTZARI-GORDELEKUAK

**barnE**

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA  
Bulegoa: Muebles Iturbe  
barne.eus

Merkatuko preziorik onenak bermatzen ditugu!



Udal ordezkariak, antolatzaileak eta omenaldi berezia jasoko duen Gonzalez Sarmiento konpositorea, Bastero Kulturgunearen kanpoaldean. ANDOINGO UDALA

# Prebentzio neurri guztiak beteta, jaialdia aurrera doa

DEIadar elkarteak eta Andoingo Udalak elkarlanean Piano Jaialdiarekin aurrera egitea erabaki dute. Larunbatean eta igandean ospatuko da, eta atariko modura Eskudero Kontserbatorioko ikasleek emanaldi berezia eskainiko dute.

## Erredakzioa ANDOAIN

Piano jotzaileen artean ezinbesteko hitzordua da, Andoingo. Are gehiago, Euskal Herri oso musika eskolen egutegian garrantzia berezia hartu du. Gutxi-asko, ikasturtearen lehen hilabeteak lehiaketa honi begira daude. Pandemiak gizarte bizitza hankaz gora jarri badu ere, jaialdiarekin aurrera egitea erabaki dute. DEIadar elkarteak da antolatzailea, Andoingo Udalarekin elkarlanean burutzen duena. Laguntza handikoak zaizkie Gipuzkoako Foru Aldundia, Laboral Kutxa eta Loidi piano etxea.

Asteburuan ospatuko da, beraz, ehunka ikaslerentzat erreferentziatzko jaialdia. Bastero kulturguneko auditorioa eta ekitaldi aretoan antolatuko da. Hamahiru saiotan banatu dute jaialdia, "saio bakoitzeko parte-hartzaileak talde burbuila modura aritu

daitezen. Saio bakoitzaren amaiera, ikasle bakoitzak uanean bertan jasoko ditu dagozkion domina eta diplomak". Segurtasun eta osasun arloko prebentzio neurri guztiak beteiko dituztela iragarri dute, antolatzaileek: "Distantzia fisikoa mantendu eta musukoa derri-gorrezkoak izango dira, eta segurtasun eta garbiketa protokoloak zorrotz jarraituko ditugu, partaide guztien ongizatea bermatze aldera".

## 300 partaide, aurtengo edizioan

Sei eta hamazazpi urte bitarteko 266 pianojoleek bakarlarari modura parte hartuko dute. Javier Gonzalez Sarmiento Sari berezian, aldiz, hamabi eta hogeita lau urte bitarteko 23 pianojole arituko dira. Guztira, 289 lehiakide. Jatorriari dagokionez, gipuzkoarrak (230), bizkaitarrak (38) eta nafarrak (18) dira nagusi. Horiez gain, Iparraldetik, Kantabriatik Mallorkatik partaide bana hurbilduko dira.

## Omenaldi berezia Gonzalez Sarmiento musikariari

Aurtengo berrikuntza nagusiena Javier Gonzalez Sarmiento izena daraman Sari berezia izango da. Donostiako piano-jotzailearen 24 pieza laburreko bildumako piezak interpretatuko dituzte atal bereziko parte-hartzaileak, Javier Gonzalez Sarmiento bera epaile lanetan arituko delarik.

**ANDOINGO 26 IKASLE ARITUKO DIRA LEHIAKETAN, ETA URNIETATIK BESTE 6 GEHIAGO**



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA  
[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)

**Aiurri eskuragarri:**  
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ate batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. [andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus) [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) @aiurri

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

**Maketatzailea:** Maddi Trubuelo.

**Kudeaketa, harpidetzak:** Garbiñe Ugartemendia. [idezkaritza@aiurri.eus](mailto:idezkaritza@aiurri.eus)

**Publizitatea:** Fer Irazu. [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

**Banatzaleak:** Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea.

**Zorion agurrak, merkatu txikia:** [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus) | [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus). Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALLERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

**Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.



AIURRI

## Ostiral iluntzean, kontzertua

Iazko bisitaldia errepikatuko du Francisco Escudero kontserbatorio Profesionaleko orkestra sinfonikoak. Ostiral honetan, arratsaldeko 19:15etan hasita, Piano Jaialdiari hasiera emateko kontzertua eskainiko dute

Basteroko Auditorioan. Garikoitz Gonzalezen zuzendaritzapean Erviti, Mier, Bach eta Haydn konpositoreen bost obra eskainiko dituzte. Kontzertua ikusteko gonbidapena behar da.

## Merkatu plaza, Makaldegian

Hasiera batean larunbateko merkata Goikoplazara eramango zutela jakinarazi bazuten ere, azkenean ohiko tokian egingo da. Ez da, beraz, aldaketarik izango. Antolatzaileek adierazi dutenez, jaialdiko bisitariak Makaldegian bertan aparkatzeko aukera izango dute. Eta baita Bordaberri aldean ere.



AIURRI



Saria jaso osteko poza antzematen zaie, aurpegietan. MIKEL EMEZABAL

## Udal Musika Eskolako ikasleek saria eskuratu dute Zumaian

Oihane Tellechea, Inge Azpiroz, Iker Gorospe eta Martin Sanchez ikasleek lehiaketa irabazi zuten

### Erredakzioa URNIETA

Andoaingo Udal Musika Eskolako klarinete saileko Oihane Tellechea, Inge Azpiroz, Iker Gorospe eta Martin Sanchez ikasleek laukote modalitateko lehiaketa irabazi zuten Zumaian, joan zen asteburuan ospatu zen XIX. Klarinete Maratoian.

Ikasleek, irakasle duten Mikel Emezabalek Beethovenen abesti sinfonikoekin egindako moldaketa interpretatu zuten; konposatzailea gogoan hartu zuten horrela, berriki musikari handiaren jaiotzaren 250. urteurrena ospatu dela-eta.

Beethovenen 5. sinfoniaren 1. mugimenduaren gai nagusia, eta, sinfonia beraren azken mugimenduarena den 9. sinfoniaren Alaitasunaren ereserkia eskaini zituzten zuzenean. Argazkian, laukotea Mikel Emezabal irakaslearekin Zumaian.

## BEETHOVENEN 5. ETA 9. SINFONIAREN MOLDAKETA AURKEZTU ZUTEN



**Bertako sagarrondoak,  
bertako sagarrak,  
bertako sagardoa**

**BERTAKO SAGARDOTEGIAK**

**Andoain,  
sagardoaren lurraldea**

*Zaindu dezagun gurea dena*



ANDOAINGO UDALA

# Gaikako bilketan hobetzeko hitzarmena

"Andoingo Ituna" sinadura-ekitaldia egin zuten aurreko ostegunean, Ipar Haizea ekimenak eta ordezkariak duten alderdi politiko guztietako ordezkariak. Eskualdeko Mankomunitatearekin batera, helburu nagusia gaikako bilketan sakontzea da



Ipar Haizeako kideak eta ordezkariak duten alderdi politikoetako bozeramaileak, sinadura ekitaldian. IPARHAIZEA

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Andoingo hondakinen bilketa selektiboaren sustapenean, sensibilizazio lanik handiena egin duen eragilea da Ipar Haizea plataforma. Urteak darama, gainera, rol hori betetzen. 2020aren amaiera aldera kezka agertu zuten, gaikako bilketak beherakada nabarmena jasan zuelako: %60-62an kokatu zen, hilabete batzuk lehenago portzentaia %66 inguruan kokatu izan zenean. "Kezkaz ikusten dugu hori. Pandemiak ez du gehiegi lagundu, baina errefusaren irekiera mugagabeak kalte handia egin duela pentsatzen dugu", adierazi zuten otsailaren hasieran. Aiurriko Komunitatea atalean eskegi zuten idatzi berean "Andoingo Ituna"ren berri ematen hasi ziren: "Azken hilabeteetan ituna lantzen eta aurkezten egon gaitaie Udalean ordezkariak duten alderdi politiko ezberdinei, adostasun amankomunetik abiatuta datuak hobetu ditzakegula sinistuta gaude-lako. Horren emaitza da EHBildu, PSE-EE, EAJ-PNV eta Elkarrekin Podemos alderdiek sinatzeko hautua egin dutela. Asko poztzen gaitu horrek. Bide honek bere fruituak emango dituelakoan gaude".

Esan eta egin. Aurreko ostegunean egin zen sinadura ekitaldia Andoingo Udaletxean.



Julen Lorenzo. IPARHAIZEA

Konpromisoz beteriko ituna da, eta bere osotasunean betez gero, urrats handiak emango dira bilketa selektiboan.

**EHBILDU, PSE-EE, EAJ-PNV ETA ELKARREKIN PODEMOS ALDERDIEK SINATU DUTE ITUNA**



## Andoingo Ituna

UDAL ORDEZKARITZA DUTEN LAU ALDERDIAK ETA IPAR HAIZEA MUGIMENDUA SINATZAILEAK



Alderdi politikoetako ordezkariok jarraian zerrendatzen dena betetzeko eta babesteko konpromiso irmoa berresten dugu:

- Hondakinen gaikako bilketa herritar, komertzio, instituzio, elkarte, ostalari, enpresa... egitekoa da Andoainean. Honako frakzioak egoki bereizi eta sailkatu beharko dira gutxienez: materia organikoa, ontzi arinak, papera eta kartoia (kartoi komertziala barne), beira eta errefusa; kasu bakoitzean sortzen diren hondakin moten arabera betiere.
- Gaikako bilketa gutxienez %65ekoa izango da (Europar Batasunak 2035erako ezartzen duen derrigorrezko helburua), 2022rako %70a gainditzeko helburua zehazten delarik, hobekuntza jarraitua bilatuz. Lortu ezean, neurri zuzentzaileak jarriko dira abian, aipatutako bi kasuetan.
- Andoingo ekitaldi eta festa guztietan, salbuespenik gabe, hondakinen gaikako

bilketa eta kudeaketa egokia burutzeko edukiontzi espezifikoak ipiniko dira.

- Materia organikoan dauden inpropioek ezin izango dute %5a gainditu. Gainditu ezker, egoera berbideratzeko neurriak hartuko dira, gaika sailkatutako materia organikoaren kalitatea bermatzeko.
- Hondakinen sortzaile berezi, ostalaritzari eta komertzioari bilketa berezian atxikimendurako kanpainak egitea parte hartzaile kopurua handitzea helburu izanik eta frakzio gehiagotara (egungo organikoaz gain) zabalzea gaikako bilketa areagotzeko: errefusa...halaber, kartoi komertziala establezimenduen ateetan jasotzera pasa berau hobetzeko.
- Landa eremuko edukiontzi guneak osatuko dira edukiontzi isleta osoak ipiniz: Celulosas, Borda Berri, Itxasmendi... herriguneko eredu jarraituz.

- Poltsa konpostagarrien banaketa errazteko, hauek banatzeko makinak martxan jarriko dira Allurralde kiroldegian eta Anbrosia Olabiden, ordutegi zabalarekin.
- Zakarrontzi selektiboak ezartzen jarraitu herrigunean.
- "Puntu beltzen" (edukiontzi guneak) jarraipen zehatza egin eta zuzentzeko neurriak abian jarri.
- Birziklatzen erakusteko tailerrak abian jarri, gizartearen kolektibo espezifikoie edota jendarte orokorrari zuzenduta.
- Edukiontzien itxiera egokia eta itxitura elektronikoen hobekuntza landu.
- Arroparen eta olioaren bilketarako egungo edukiontzi sarea handitu.
- Auzokonpostaren analisia egin eta autokonposta sustatu, landa eremuan materia organikoaren autokudeaketa helburu izanik.

- Gipuzkoan sortutako konpostaren erabilera egin udalerriko lorategietan Andoingo Udalaren lorazaintza zerbitzuaren aldetik, ekonomia zirkularraren zikloa ixteko helburuarekin.
- Plastikoa ibaietara (eta ondorioz, itsasora) ez hartzeko sare metalikoen ezarpena aztertu (eta, hala badagokio, ezarri) herriguneko ibai inguruetan, Gipuzkoako zenbait udalerritan (Zumarraga, Urretxu, Zestoa, Azpeitia, Azkoitia...) egin den ezarpena kontuan hartuta.
- Andoingo hondakinen kudeaketa/ bilketan egon litezkeen hobetzeko bestelako ekintzak adostu eta burutu.
- Itun honetan zehaztutako neurrien jarraipena burutu (bilerak, dokumentuak etab.), hondakinen gaia lantzen duten udalerriko kolektiboen, udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztien eta Tolosaldeko Mankomunitatearen partehartzea bermatuz eta herritarrekiko gardentasuna erakutsiz.



Idiazabal kalean geldialdia egin zuten, astebete lehenagoko gertaerak salatzeko. AIURRI

# Herritar asko batuta, jazarpenaren aurrean

Pasa den otsailaren 20an, manifestazioa izan zen Urnietan, astebete lehenago herrian izandako istiluak medio. San Juan plazatik abiatu zen eta bereziki esanguratsua izan zen Idiazabal kalean egindako geldialdia

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

“Gazteen aurkako jazarpenik ez!”, zioen pankartak, lelo nagusiak. San Juan plazatik abiatu ziren arratsaldeko 17:00etan, eta herriko kaleetan barrena egin zuten manifestazioa. Hiru lerrokada luzetan antolatuta egin zuten protesta urnietarrek, gazteek zein helduek, baita hitzordura hurreratutako ingu-

ruetako herrietako beste hainbat kidek ere.

## San Juan plazan hasi eta amaitu

Zenbait geldialdi egin zituzten, eta horietatik nabarmenena Idiazabal kalekoa izan zen, hain zuzen, Xauxar tabernaren parean eginikoa. Astebete lehenago tentsio handia egon zen toki

horretan bertan, tabernak itxi ostean, baina etxeratze-ordua baino lehen, Ertzaintza agertu zenean. Hasierako leku berean eman zioten amaiera mobilizazioari. Bukatzeko, irakurketa egin zuten, asteburuko istiluak argitu ez ezik, bai Urnietan, bai beste hainbat herritan, Ertzaintzak izandako jarrera oldarkorra ere salatzen asmoz.



Deitzaileek prestatu zuten adierazpena irakurri zuten ekitaldiaren amaiera aldera. AIURRI

## Manifestazio amaierako irakurketa

Azken hilabeteotan, politikariek, osasun-larrialdiaren kudeaketa zuzitzeko helburuz, okerreko diskurtsoa zabaldu dute: gazteak dira kutsatze-kopuruak gora egitearen erantzule nagusiak.

Arduragabetzat jotzen dituzte gazteak. Hala, kriminalizazio-kanpaina horretan errepresio handiko egoerak pairatu behar izaten ditu gazteriak. Iragan asteburukoa da horren erakusle.

Azken hilabeteetan lez, otsailaren 13an, gaueko 20:00etan itxi ziren taberna guztiak. Ordubete geroago, 21:00ak aldera, Ertzaintzaren bi furgoneta eta patruila-auto bat gelditu ziren Xauxar parean. Ohiko bilakatu da beraien presentzia herrian, baina larunbat hartakoa bestelakoa izan zen, oso bestelako jarrera eduki baitzuten: ibilgailuetatik korrika atera ziren, oihuka eta borrak eskutan; horietako asko istiluen aurkako tresneriarekin.

Bertan zeuden herritar asko, poliziaren jarrera erasokorra ondo ulertu gabe, ospa egin zuten korrika, beldurtuta. Alabaina, –ezer txarrik egiten ari ez zirelakoan– bertan gelditzea erabaki zuten herritarrek identifikatu zituzten, eta baita hainbat lagun paretaren kontra jarri ere, azalpenik eman gabe. Oso egoera biolentoa izan zen; tentsio handia sortu zen. Idiazabal kalera iritsi eta bost minutura, beraiek sortutako zalaparta horretan, gazte bat abxilotu zuten.

Bien bitartean, zenbait herritar poliziaren jarrera oldarkorra salatzen eta jarrera horren zergatia azaltzeko eskatzen zeuden inguruan. Batzuek aginduak betetzen besterik ez zeudela esaten zuten. Beste batzuek, aldiz, –osasun neurriak errespetatu gabe zeuden zenbait ertzain– jendea hiltzearen errua bertan zeuden gazteei egozten zieten, beren ekintzak justifikatzeko. “*Como no te entiendo me la suda lo que me dices*”, bota zuen ertzainetako batek.

Ondoren, joatea erabaki zuten, nahiz eta handik hamar minutura itzuli: oraingoan, eskudoa eskuan. Xauxar tabernako aldapan gora igo ziren, paretik kentzen ez zena salatu egingo zutelaren esanez. Bazterrak nahasten jarraitu ondoren, joan egin ziren, eta ez ziren itzuli.

Larunbateko istiluak 9 identifikatu eta abxilotu bat utzi zituen. Eta berriro ere amu gisa erabili zen gertatutakoa gazteak kriminalizatzen dituen diskurtsoa elikatzeko, baita boteredunen kudeaketa penagarria estaltzeko ere.

Alde batetik, azken urteotan osasun-zerbitzu publikoan egindako suntsipenak –murrizketak, pribatizazioak, langileen lan baldintza kaxkarrak eta abar– bete ditu orain gaixoz ospitaleak. Beste alde batetik, Espainiako Estatuko aurtengo aurrekontuetan gastu militarrek nabarmenki gora egin izanak ere lotura zuzena du osasuna bide bazterrean kokatzearekin. Hori gutxi ez balitz bezala, Eusko Jaurlaritzak ere jarrera horri eutsi dio; osasuna bermatzeko baliabideak murrizteaz gain, poliziaren presentziari eman dio garrantzia pandemian: ertzain izateko plaza gehiago jarri dira martxan, milioika euro xahutu dira poliziaren ibilgailuetan. Bien bitartean, azken autonomia erkidegoa da EAE, txertoen banaketari dagokionez. Bestalde, indar armatuak txertoa jartzen hasi diren bitartean, osasun langile gehienek oraindik ez dute txertorik hartu.

Gainera, egoera latz honetan, diru-gosez jokatu dute politikariek; enpresarioen, multinazionalen eta bankuen alde egin dute apustu. Ondorioz, enpresa txikien zein ertainen itxierak eman dira, gora egin du ERTE-en kudeaketa penagarriak, geroz eta etxegabetze gehiago daude...

Horiek horrela, gazteak al dira egoera zaila izatearen erantzule, errudun? Ez dugu onartzen poliziak urnietarrek joan den larunbatean izandako jarrera, ez eta beste hamaika herritan edukitakoa ere. Osasunaren izenean jotzen dute jendea, oldarkeriaz aritzen dira, errepresio osoz. Aski da! Nazkatuta gaude edozein aitzakiaz baliatzea errepresioa gauzatzeko; kalean egoteak ez dio inori kalterik eragiten. Gazteak ez gara politikarien txotxongiloak edo kudeaketa txararen erantzuleak! Boteredunak dira kutsatuen eta hildakoen errudun bakarrak! Argi geratu dadila guk antolakuntzan eta borrokan jarraituko dugula, erasoan, kriminalizazio basatiaren, ustelkeriaren eta joko zikinen gainetik!

Gazteen aurkako jazarpenik ez!

# "Une oso hunkigarriak bizi izan ditugu"

**MILA OLAIZOLA ANTIA SAN JOAN BATAIATZAILEA EGOITZA**

Pandemia hasi denetik lehen elkarrizketa eskaini dio Aiurri astekariari. Andoaindar askok interes eta kezka handia agertu dute adinekoen egoitzako komunitatearekin

**Erredakzioa ANDOAIN**

**Urtarrilaren 15ean jaso zenuten txertoaren lehen dosia, eta dena ondo joan zela adierazi zenuen. Poza hitza ere erabili zenuen. Azalduko zeniguke egun horretako giroa zer nolakoa izan zen San Juan Bataiatzailean?**

Guretzat egun garrantzitsua izan zen. Egoiliarrek oso pozik hartu zuten txertoa, seguruenik, bizi duten egoera aldatuko delakoaren itxaropenarekin. Langileen aldetik beldur pixka batekin ere, txerto berria izanda, hein batean horren ondorioen beldur zirelako. Hala eta guztiz ere, gehiengo batek hartu dugu txertoa.

**Erraz esaten da urte gogorra izan dela, baina zuenean bereziki gogorra izan da. Adineko jendea delako, kanpoan senideak dituztelako, langileen osasuna jokoan da-goelako... Nolakoa izan ziren hilabete horiek lanetik ateratakoan? Deskonektatzea ezinezkoa litzatekeela irudikatzen dugu.**

Deskonektatzea benetan ezinezkoa izan zaigu, hilabeteetan zehar. Lana izan da gure lehen-tasuna denbora horretan guztian. **Zer da adinekoei gehien eragin diona?**

Uste dut etxeok ezin ikusteko aukerak pisu handiena izan duela egoiliarrengan. Egoera horrek areagotu egiten baitu bakartasun sententzia. Bestalde, beldurra ere hor egon da: gaitzeko beldurra.

**Suhiltzaileak desinfekzio lanetan, protokolo neurri zehatzak... zenbateraino aldatu da zuen egunerokoa egoitzan?**

Erabat aldatu da. Egoitza berantolatu behar izan dugu, goitik behera. Moduloka lana egin behar izan genuen, eta oraindik horrela jarraitzen dugu. Denontzat egoera berria izan denez, protokolo berri ugari aplikatu behar izan ditugu. Egoera hain aldakorra izanik, protokoloak ere aldatuz joan dira. Beraz, denbora honetan antola-



San Juan Bataiatzailea adinekoen egoitza, Ama Kandida etorbidean. AIURRI

keta mailako aldaketa pila izan ditugu.

**Keinu politak egon dira, langileekiko eta egoiliarrekiko. Kaletxikitarren eta herrikideen artetik, bereziki.**

Egia da, diozuna. Denbora tarte honetan guztian jaso ditugun keinuek aurrera jarraitzeko indarra eman digute. Egoiliarren senideengandik ere animo asko jaso dugu. Denbora honetan zehar oso lagungarria izan zaigu babes hori guztia.

**Beldurra, ezjakintasuna, murrizketak..., zein adiera irudikatzen du ondoen bizi izan duzuen?**

Beldurra esango nuke, batez ere pandemiaren lehenengo oldarraldian. Gerora, neurri berriekin lan egiten ikasten aritu garen heinean, lasaiago egin ahal izan dugu lan.

**Zer nolakoa da egoiliarren senideekin izan duzuen harremana?**

Saiatu gara senideei informazio eguneratua ematen, nahiz eta

batzuetan ezinezkoa izan zaigun. Bereziki, lan kargaren ondorioz. Saiatu gara egoiliarren eta senideen arteko komunikazioari eusten, nahiz eta elkarren artean elkar ikusteko aukerarik ez izan. Deiak eta bideo-deiak egin ditugu, eta horietako askotan oso une hunkigarriak bizi izan ditugu.

**Heriotza beti da albiste txarra, eta egoera honetan are gehiago. Bereziki min eman al du pandemia garaian egoitzara heriotza iritsi izana?**

Denbora tarte honetan gertatu diren heriotzak gogorrak izan dira. Edozein pertsona, heriotzaren unea iritsita lagunduta egotea beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Eta pandemiak, kasu batzuetan, ez digu horrela jokatzeko utzi. Prebentzio neurri guztiak hartu behar izan ditugu, uneoro. Lehen aipatzen nuen egoiliarren gaixotzeko beldur hori. Gaixoardian edo heriotza iris-

teko garaian lagunduta egotea nahi zuten, eta zorritzarekin errealitatea beste bat izan da.

**Zorionez, halere, Gipuzkoan eragin gutxien izan duen egoitzatokia Andoaingoa da. Hori adieraztea beharrezkoa da.**

Gure ustean pandemiaren lehen olatua libratzean zorte handia izan genuen. Kasu positiboak izan ditugun aldioro egoera kontrolatua zegoen, eta horrela gu lasaiago aritu gara. Emandako kasu positiboetan, gainera, gehiengoak sintomatologia txikia izan du eta osatze ona izan dute.

**Langileen aldetik izan duten joera, oro har, nola azalduko zenioke Aiurriko irakurleari?**

Uste dut langile guztien inplikazioa izugarria izan dela, nahiz eta une oso gogorrak pasa. Ez dute inoiz amore eman, eta hor egon dira lanari tinko eusten. Eskertu beharreko da izan da, zuten guztia eman dutelako.

**Itzul gaitzen berriro txertaketara. Egoera nabarmen bideratzen lagunduko du txertaketak?**

Esperantza horrekin gaude. Une honetan nabari da, orokorrean, adinekoen egoitzatan kasu berrien kopurua erabat jaitsi dela, eta hobekuntza horrek lasaitasun handia dakar. Denbora pixka bat gehiagorekin, eta txertaketa gizartean zabaltzen doan heinean, protokoloak ere aldatuz joango diren esperoan gaude. Batez ere, egoiliarrek senideekin egoteko eta disfrutatzekeo neurriak lasaituko direlako. Benetako beharra dutelako. Baina, noski, hori gertatzeko egoerak kontrolpean egon beharko du.

**Gizartean zalantzaren bat egon zitekeen, baina zuen sektorean txertaketa ezinbesteko irtenbidetzat hartu da.**

Bai. Bizi genuen egoera askoz denbora gehiagoz luzatzea oso zaila delako. Honezkero gure aitona-amonak aurreko bizimodua berreskuratzeko desiatzen daude, bizitzaz disfrutatzekeo eta familiaz gozatzeko. Kontutan hartu behar dugu egoiliar gehien bizitzak ibilbide motza izango duela, eta geratzen zaien denbora horretan gozatu eta bizitzari ahalik eta probetxu handiena atera nahi diotela.

**Andoain aldean San Juan Bataiatzailearen inguruan zabaldu ditugun albisteek jarraipen zabal izan dute. Zer esango zenieke andoaindarrei? Zaintzen jarraitu behar dugula, denon hobebharrez.**

## Astez asteko garapena

Urrietan otsailaren 10az geroztik ez zen kasu positiborik agertu, eta horri esker Urrieta eremu berdean murgildu zen. Egoera epidemiologiko desiratua da, Euskadin helburu bezala jarrita baitago 60ko tasatik azpira jaistea.

Andoainen egoera lasaia da, eta astetik atera positibotasuna ia berbera izan da.

Gipuzkoa 300eko intzidentzia tasa azpitik dago, egun hauetan.

### ANDOAIN

• **Otsailak 17-Otsailak 23:**

11 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 140,11.

• **Otsailak 10-Otsailak 16:**

10 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 240,19.

• **Otsailak 3-Otsailak 9:**

26 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 373,63.

• **Urtarrilak 27-Otsailak 2:**

30 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 680,54.

• **Urtarrilak 20-26:**

72 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 887,38.

• **Urtarrilak 13-19:**

61 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 834,00.

• **Urtarrilak 6-12:**

64 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,53.

### URNIETA

• **Otsailak 17-Otsailak 23:**

1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 32,21.

• **Otsailak 10-Otsailak 16:**

1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 144,95.

• **Otsailak 3-Otsailak 9:**

8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 499,28.

• **Urtarrilak 27-Otsailak 2:**

23 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 837,49.

• **Urtarrilak 20-26:**

29 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 853,60.

• **Urtarrilak 13-19:**

16 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 467,06.

• **Urtarrilak 6-12:**

5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 177,16.

**"PANDEMIA GARAIK AREAGOTU EGIN DU EGOILIARREN BAKARTASUN SENTSAZIOA"**

**"GURE AITON-AMONAK AURREKO BIZIMODUA BERRESKURATZEKO DESIATZEN DAUDE"**

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



## POSTONTZIA

ERNAI, SORTU, LAB BURUNTZALDEAKO EZKER ABERTZALEA

## Ez gaitzabela engainatu, betiko aurpegia dute!

Atzo telebistan, gaur irratian eta bihar markesinan.

Etengabe, goiz eta arrats, komunikabide eta sare sozialetan: ertzaintzaren 700 plaza berri, duintasuna alde batera utzi eta herria saldu nahi duenarentzat.

Garai berriez eta bizikidetzaz ari gatzazkigu, baina PNVren apustua garbia da; guztiz gaidimentsionatuta dagoen Ertzaintzaren instituzioa handitu eta indartzea. Instituzio honekiko jasaten ari garen zuriketa kanpaina eta propaganda ikaragarria da, euren irudia eta lana normalizatzeko saiakera garbia dago, normala izatetik oso urrun dagoen arren. Ezin dugu normalizatu Ertzaintza izatea, zure bizilagunak eta herritarrak jipoitzea, jazartzea zein torturatzea

normalizatu ezin diren era berean.

Pandemia, arazo bat baino, aukera bat izaten ari da PNVrentzat eta haren Ertzaintzarentzat. Egungo testuinguruan beharrezkoak diren segurtasun neurrien aitzakipean, kontrol maila izugarri handitzeko eta gehiegikerietarako leiho paregabea ireki zaie. Probatzen ari dira, ea nora arte estutu gaitzaketen, ea nora arte eusten dugun, eta ez dezagun pentsa pandemiari aurre egiteko neurriak direnik, ez, pandemiak euren boteretzea ahalbidetu badu ere, orain onartzen ditugun jarrera oldarkorrek geratzeko helburuz etorri dira, egungo kontestutik haratago doaz.

Egoera honetan, Ezker Abertzaleak hasieratik azaleratu du herritarron

osasuna krisiaren erdigunean jartzeko beharra.

Koherentziaz eta zuhurtziaz jokatu du bere jardun politikoa aurrera eramatean, eta PNV-k zein komunikabideek ederki asko dakite hori, horregatik erabili nahi izan dute poliziaren jokabidea lehia politikoaren arma gisa; haien kudeaketa lotsagarria alboratu asmoz, Ezker Abertzalea interperlatu nahi izan dute.

Hori gutxi balitz, Ertzaintzak biolentziaren hegemonia duela erakutsi nahi izan du, herritarren jokabideak kriminalizatu eta eskubide ororen gainetik daudela garbi utziz. Horren adibide dira azken asteotan sare sozial zein hedabideetan ikusitako hainbat irudi; haien lanpostuen galeragatik protestan ari ziren ITPko

langileen elkarretaratzean sindikalistari sudurra hautsi ziotenekoak, edota Donostiako Alde Zaharrean ikusitako aktuazio zentzugabeak.

Lehen «*entrar con todo lo que tenemos*» esaten zuten era berean, orain «*vamos a tirar a dar*» diote Donostiako Alde Zaharrean gazte bati matrailezurra hautsi aurretik. Esaldi horien ondorioak jakinak dira: Iñigo Cabacas, Rosa Zarra, Anne, Nahuel Gomez, Kontxi Sanchiz edota Remi Aiestaran. PNVk ez badu Ertzaintza zehatzen horrelako kasuetan, Ertzaintzaren gehiegikeriei onespina ematen ariko zaie.

Indar polizialen irudia zuritzeko ahaleginetan dabilta, pandemiari aurre egiteko salbatzaileak bailiran, baina boterea eman zaien

unean bertan erakutsi dute betiko instituzioa izaten jarraitzen dutela, eta euren partetik jipoiak, atxiloketak, ala abusuak besterik ezin ditugula espero. Hala erakusten dute, bederen, azken gertakariak.

Garai berri baten kondaira eta ohiko lanbide bat saldu nahi badigute ere, argi dago betiko aurpegia dutela; elite ekonomiko eta politiko konkretu baten interesak babesteko euren bizilagunak eta senideak jipoitu eta hiltzeko prest dauden *borreroak*.

Ez gaitzabela engainatu, ez da beste lan bat gehiago. Ozen esan nahi dugu ez garela geldirik geratuko, orain, inoiz baino gehiago, indarrak batu eta Ertzaintzaren gehiegikeriei atek itxi eta erantzuteko unea dela.



## JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!

- Jaitsi Telegram aplikazio ezaguna.
- Sartu, **Aiurri Urnieta**, **Aiurri Andoain** edo **Aiurri Aiztondo** kanalean.
- Batu zaitez (UNIRME) eta jaso eguneko albiste nagusiak.

ESKUALDEKO  
NORTASUN  
HITZAK





Udal ordezkariak, langileak eta emakumeen talde ezberdinetako ordezkariak elkartu ziren aurtengo egitarauaren aurkezpen ekitaldian. AIURRI

#### Xabier Lasa ANDOAIN

“Bederatzi urtez *Pausoz Pauso* ekitaldia egin izan dugu, Andoingo zortzi emakume aintzatsiz kultura, euskara, hezkuntza, kirola eta beste hainbat arlotako ordezkariak zirenak. Hamargarren urtemugara iritsita, zerbait berezia egin nahi genuen emakume horien, eta orohar, emakume guztien urte hauetako hobetze, ahalmentze eta borroka bide guztiak aintzat hartu eta omentzeko. Gauza asko egin dira orain arte, baina dena ez dago eginda. Eta hemendik aurrera, etorkizunean zer nahi dugun pentsatu behar dugu. Urtero omenduekin kalejira antolatzen genuen, ibilbide zehatza eginez eta hainbat geltokietan banatuz. Aurten ibilbidea berezia izango da, osasun kontuagatik, eta bestetik, aurten ez dagoelako emakume izendaturik, aurreko bederatzi urte horietako emakumeei dagokien omenaldia baizik. Beraz, urte bakoitzeko banderatzko adierazgarriak jarriko dira ibilbidearen puntu guztietan, eta herritarrak gonbidatzen ditugu ibilbide hori egitera eta omenaldi honetan parte hartzera, beste modu batera bada ere. Bandera horiek martxoaren bostetik aurrera egongo dira jarrita”.

# Martxoaren 8a iristear da

Kultura, Gizarte zerbitzuak eta Gazteria Udal lansailak Andoingo emakume elkarteekin lankidetzan egindako egitarau oparoa aurkeztu zuten, astelehenean deitu zuten agerraldian. Petri Romero Berdintasun zinegotziak eskaini zituen xehetasunak

## Pausoz pauso, ez ohiko hamargarren ekitaldia

2012an abian jarri zen, zortzi edo larogei edo zortzirehun emakumeren lanari aitortza egiteko. Egunerokoan eredu diren herrikideak txalotzea izan zen hasierako asmoa, eta gerotik izpiritu horri eutsi diote. Ez ohikoa bada ere, aurtengoan ez dute hutsik egin nahi eta Bastero Kulturguneko auditorioan ekitaldia prestatzen ari dira. Hilaren 6an izango da.



2012. urtean egin zen lehen edizioa. AIURRI

## Ekitaldi sorta zabala

### Martxoak 1-18

Sormen lehiaketa: “Guztiok izan beharko genuke feminista” liburuaren inguruan.  
Lanak aurkezteko epea: martxoaren 1etik 18ra.

### Martxoak 5, ostirala

Erakusketa: “Algodoneraren emakumeak”, Fanny Alonsoren eskutik.  
18:30, Bastero.

### Martxoak 5-26

Erakusketa: Emakume famatuak. Gazte Lokala.

### Martxoak 6, larunbata

Ekitaldi berezia: “Pausoz pauso, X. urteurrena.”  
12:00, Bastero.

### Martxoak 8, astelehena

Manifestazioa, Andoingo Asanblada Feministak antolatuta.  
18:30 Goikoplazatik abiatuta.

### Martxoak 9-13

Erakusketa: “Emakumeak Andoainen” erakusketa.  
17:00-20:00 Ludoteka.

### Martxoak 11, osteguna

Antzezlan: “Txanogorritxotik otso emera”.  
19:00 Bastero, auditorioa.

### Martxoak 12, ostirala

Diaporama: “Emakume gazte bidaiariak”. Hizlaria: Amaia Armendariz.  
18:00, Bastero.

“Un grito de mujer” flamenko ikuskizuna.  
19:00, Bastero.

### Martxoak 13, larunbata

Txapa tailerra.  
10:00-13:00, Ludoteka.

### Martxoak 14, igandea

Haur antzerkia: “Kotondarrak”.  
17:00, Bastero.

### Martxoak 16, asteartea

Zinema: “La boda de Rosa”.  
18:30, Bastero.



## "Muturreko egoeretan lan egiten badakigu"

MONICA RIVERO KARTEL LEHIAKETAKO IRABAZLEA



AIURRI



Monica Rivero zarautzarraren "Etxe-orratzeko hamaiketakoa" irudiak irabazi du Andoaingo kartel lehiaketa, eta beraz, berea izango da aurtengo Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekitaldi sorta iragarriko duen irudi ofiziala.

Andoaingo ESCIVI Zine eta Bideo Eskolako ikaslea da Monica Rivero, eta batik bat argazkilaritzara eta irudira bideratzen du bere sormena. Joan den astean "Andoaingo Laburrean" lehiaketako hirugarren saria eskuratu zuen Nerea Berroeta, Sandra Vicente eta Nora Blanco ikaskideekin batera, "Ilargi" laburmetrairekin.

"Lagun baten etxean nengoela, buruan sartuta geratu zitzaidan

horman zintzilikatuta zeukan langile amerikarren argazki mitikoa. Irudipena eduki nuen ideia gisa balio zezakeela, kartel lehiaketarako lantzeko garaian. Alegia, aldarrikatzeko emakumeak ere langileak garela eta badakigula muturreko egoeretan lan egiten. Eta aldi berean, lantokian hamaiketakoa edo atsedena egokitzen denean, nork nahi duena egiten duela: irakurri, zigarroa erre, hitz aspertuan aritu, hodeiertzari begira egon, ondokoa zirikatatu... Irudia osatzeko, lehenbizi bi elementu hautatu nituen: zintzilika dagoen habea alde alde, eta, New Yorkeko irudia fondorako. Ondoren, emakume langileak irudikatze, ikastetxean nire inguruan dauzkadan emakumei erretratua egin nien banaka-banaka, maindire berdea atzean jarrita, *croma* ikus-entzunezko teknika erabiliz alegia. Ezkerretik hasita, honakoak dira karteleko emakumeak: Ainhoa irakaslea eta Sandra, Saioa, Nerea, Maider eta Nora ikaskideak, eta ni neu.

Ezustean etorri zait saria, egia esan. Nora eta Nerea ikaskideek ere aurkeztu dituzte kartelak, eta sinetsita nengoen bietako bat aukeratuko zutela, bikainak baitira. Nirea hobetsi dute, eta pozik nago; nire diseinua azalduko da datozen egunetan kaleetako hormetan eskegita, publizitatean, sare sozialetan..., eta errealtate horretara mentalizatzea kostako zait".

# Hitzordu-sorta Urnietan

Erakusketa, zinema emanaldia, haur tailerra, musika edota elkarretaratzea; Emakumeen nazioarteko egunaren harira ekitaldi-sorta iragarri du Urnietako Udalak. Martxoaren 8rako, ohi bezala, elkarretaratzea deitu dute San Juan plazan



David Rosco Sustapeneko zinegotzia eta Luke Goñi Berdintasunerako zinegotzia. UDALA

### Erredakzioa URNIETA

Egitariuari erreparatuta, interes berezia piztu dezake marrazteko tailerrak. 10-15 urteko gaztetxoek zuzenduta dago, eta Ainara Azpiazu "Axi" ilustratzaile profesionala izango da dinamizatzailea. Udalak ohar bidez adierazi duenez, "Partaide bakoitzak tira komiko edo orrialde bat sortuko du pertsonaia bat aukeratuz. Tailerrean pertsonaia nola marraztu landuko da, nola jarri mugimenduan aukeratzen dugun pertsonaia, eta gainera, horrekin gidoi propio bat sortuko da". Martxoaren 6rako iragarrita dago, eta Lekaion eskainiko dute.

Biharamunean, martxoaren 7an, Joli Pascualena kantari ezagunak bertsioez osaturiko emanaldia eskainiko du: "Historiara pasa diren abeslari handi eta ezagun batzuen abestien bertsio originalen inguruan arituko da". Janis Joplin, Chavela Vargas, Maria Callas, Dolly Parton eta Nina Simoneren kantuen eskainiko ditu.

Martxoaren 8an, ohi bezala, Udalak elkarretaratzea deitu du San Juan plazan. Azken urteotan dozenaka lagun elkartzen zen.

## Martxoaren 1etik 8ra Urnietan

### Martxoak 1-18

Erakusketa: "Emakumeak kirolari". Iñaki Vergararen argazkiek kirolarien egunerokotasuna erakusten dute. 08:00-20:00, Lekaio.

### Martxoak 5, ostirala

Zinema: "Erlauntza". Lagun koadrila bat asteburu pasa joango da landetxe batera. 19:00, Sarobe.

### Martxoak 6, larunbata

Tailerra: "Mafalda" tailerra 10-14 urte bitarteko haurrentzat. 11:30, Lekaio.

### Martxoak 7, igandea

Kontzertua: "Incorrectas" 19:00, Sarobe.

### Martxoak 8, astelehena

Elkarretaratzea. 19:00, San Juan plaza.



Itziar Atienza. HUHEZINEMA



Joli Pascualena kantaria. ARGIA

# Eskubaloiko denboraldia abiada hartzen ari da

**ESKUBALOIA** Senior mailako taldeak Arrasateren aurka galdu ondoren, asteburuan Basauriko taldearen aurka lortu nahi dute denboraldiko bigarren garaipena. Jubenil mailan Leizaran taldea nagusitu zitzaion Urnieta KE taldeari

## Erredakzioa ANDOAIN

Urnietako taldeak ezin izan zuen denboraldiko bigarren garaipena eskuratu, Mugarri-Ingou Arrasateren aurka 32-29 galdu ostean. Taldea gora-beheratsua izan zen, zeinak, maila handia erakustetik gutxiagora igaro ziren denbora gutxian. Lehen zatian, sei goleko abantaila edukizetik, sei goleko desabantaila izatera igaro ziren. Konpondu beharreko akatsak, irregulartasuna ardatz.

Porrota gogorra izan zen Urnieta Artola Harategia taldekoentzat, izan ere, maila izugarria erakustetik, guztiz menderatuak izatera igaro ziren. "Geurea talde gaztea da eta emaitza honek aurrera egin eta bilakaera ona edukitzen jarraitzeko balioko digu", diote taldekideek. Jada, Basauriren aurkako partidarako prestaketa lanetan hasi dira. Norgehiagoka oso garrantzitsua izango da, puntuetan berdinduta baitaude.



Ander Elustondo senior mailako jokalaria. UKE

## Andoaindarrak garaile jubencil mailako partidatan

Urnieta Guria Jatetxeak ezin izan zuen ligako lehen garaipena eskuratu. Andoaingo Leizaran taldea garaile irten zen, 30-28 emaitzarekin.

Bi taldeak horrenbeste denbora jokatu gabe egon ostean, maila handia erakutsi zuten, eta norgehiagoka polita ikusteko aukera eskaini zuten. Hala ere, andoaindarrak gehiago izan ziren.

## Espainiako Vuelta, urteko hitzordua

Sekulako albistea jaso zuen Euskadi Fundazioak, aurreko astean. Espainiako Vueltaren edizio berria izango da Euskadi, eta horrek taldeari bultzada handia emango dio. Zer esanik ez Mikel Iturria eta Mikel Alonso urnietarrei. Errepidean erakutsi beharko dute Burgosko irteeran egoteko moduan daudela.

## Aiztondo Klasika

Afizionatu mailako gorengo mailako korrikalariak eskualdetik gertu ibiliko dira. Martxoaren 14an Aduna aldetik igaroko dira, Asteasun hasi eta Zizurkilera amaituko den lasterketan.



EUSKALTEL



Euskaldunako partida, artxiboko irudian. AIURRI

## Berdinketa Real Unionen aurka

Esperientzia handiko taldearen aurka berdinketa lortu zuen Euskaldunak, denboraldiaren berrabiatzean

## Erredakzioa URNIETA

Hasieratik partida oso zaila zirudien, esperientzia handiko futbol taldea baita Real Union, baina mementoko jokaldiak aprobetxatuz gola sartu zuten. Hala ere, Irungo taldeak sen-

doago jokatzeko hasi zen eta partida berdintzea lortu zuten. Norgehiagoka bananduta amaitu zen, eta talde bakoitzak puntu bana etxeratu zuen. Partida ikusita, emaitza gazi-gozoa andoaindarrentzat.



Leizaran institutua. AIURRI

## Bizikleta zaharrak biltzeko deialdia

Andoaingo Leizaran institutuko DBH 4. mailako ikasleen ekimena da. Helburua berrerabilpena sustatzea da

## Erredakzioa URNIETA

Bizikleta zaharrak eraberritzeko proiektua lantzen ari dira Andoaingo Leizaran institutuko 4. DBHko ikasleak. Euren asmoa, etxeetan soberan edo baztertuta dauden bizikletak bildu, haiek konpondu, eta bigarren aukera bat ematea da: berriz ere erabilgarri jartzea. Bizikleta horie-

tako batzuk, gainera, eraberritu ez ezik, elektrifikatzeko asmoa ere badute.

Egitasmoa gauzatu ahal izateko, beraz, bizikleta zaharrak biltzea ezinbestekoa da. Arduradunak gerturatuko lirateke haien bila eskatutako lekura. Harremanetarako: 697 381 356 / unanueliher@leizaran.net

# FUSILES O PINTADAS

## SAHARAKO ERRESISTENTZIARI BURUZKO DOKUMENTALA

gaztelera eta arabiarrez, azpittuluak euskaraz

Zuzendaria: Jordi Oriola

Otsailak **25**  
osteguna **18:30**

**Basteroko Ekitaldi Aretoan**  
Ondoren solasaldia gaur egungo gerra egoerari buruz.

Sarreraren erreserba doan:  
Delgado, Ernaitza, Stop, Urrats

Antolatzaileak  
  
 Elburria Sahara  
 S.E.A. D-en lagunen elkarteak

Babeslea  
  
 ANDOAINGO UDALA



# SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

Andoaingo Bastero Kulturgunean  
**Martxoaren 28an, 12:00tan**

Sarrerak salgai:  
 Delgado, Ernaitza, Stop eta Urrats **6€**

**Eli Pagola**  
**Alaia Martin**  
**Aitor Mendiluze**

**Iker Zubeldia**  
**Andoni Egaña**  
**Maialen Lujanbio**

Gai jartzailea: Unai Ormaetxea

OHARRA:  
 Emanaldia auditorioan izango da.  
 Segurtasun neurriak hartuko dira.

ANTOLATZAIK  
  
 Elburria Sahara  
 S.E.A. D-en lagunen elkarteak

LAGINTZAIK  
  
 Puzitua

AIURRI  
  
 AIURRI

  
 Andoaingo Udala





Saritutako hiru laburmetriak andoaindarrareuskaraz.eus webgunean ikusgai izango dira, laster. AIURRI

## Andoain Laburrean lehiaketako saridunak

Genero eta estilo desberdin jorratzen dituzten hamahiru lan aurkeztu dituzte "Andoain Laburrean" lehiaketaren azken ediziora. Aurreko astean egin zuten sari banaketa ekitaldia, Udal ordezkarien eta saridunen parte hartzearekin

### Xabier Lasa ANDOAIN

1. **"Distopia"**. Amesgaizto baten iradokizuna, eta kamera subjektiboan hain egoki islatu izana nabarmendu dute. Egileak: Iratxe Sotil, Nerea Garmendia, Mikel Esteban eta Julene Zaballa. 400 euroko diru-saria.
2. **"Atzokoa"**. Beste pertsonen egin-dako irainekin bukatu, eta laguntasuna aldarrikatzen

duen historia, irudia eta off ahotsarekin hain egoki uztartzeagatik. Egileak: Maddi Davila eta Ainhize Pedrero. 200 euroko saria.

3. **"Ilargi"**. Gure arbasoek helarazitako kondairak hain maizuki hezuramamitzeagatik. Egileak: Nerea Berroeta, Sandra Vicente, Nora Blanco eta Monica Rivero. 100 euroko saria.

Gaizka Izagirre Gaztezulo al-dizkariko zuzendaria, Aitziber Garmendia aktorea eta Iker Casado andoaindarra izan dira epaimahaikideak.

Alex Huitzi ENBAko ordezkariak sariketaren garrantzia azpimarratu zuen: "Gazteen bitarteko naturala ikus-entzuznekoa da eta euskaraz sortu eta gozatu ahal izatea funtsezkoa da".

## Unanibiko zubia, inspirazio iturri

BERROETA, VICENTE, BLANCO ETA RIVERO SARIDUNAK



Laukote saritua, Bea Amondarain ESCIViko irakaslearekin batera. AIURRI

Otietako parkean, Unanibiko zubian errodatu zuten "Ilargi" hirugarren saria jaso zuen laburmetria. Nerea Berroeta, Sandra Vicente, Nora Blanco eta Monica Rivero dira bere egileak: "Euskal Herriko kondaira tradizionalaren bat eta Andoaingo leku emblematico bat uztartzea izan zen gure hasierako asmoa, eta Unanibiko zubira joan ginen, euskal mitologiako lamien inguruko istorio bat kontatzeko. Talde heterogeneoa osatu genuen, eta izugarri ikasi dugu errodatean zehar, izan ere, denetik egin behar izan dugu; ohartu gara horrela ikasten dela benetan zer den filma bat errodatzea. Aktore lanetan probatzea ere tokatu zaigu, eta egia esan, nahiago kameraren atzean aritu, aurrean baino!".



andoainDARRA  
euskaraz

egunean  
behin



- **Aste bakoitzeko sagardo kaxa bana zozkatuko da.**
- **Lehen 3 irabazleak: Txuruskita (Mizpiradi), Lupita (Zabala), Miren (Gaztañaga)**



Beñat Urretabizkaia dantzaria. BEÑATURRETABIZKAIA

# “Nire alegiazko mundua irudikatzen du PoP ikuskizunak”

## BEÑAT URRETABIZKAIA DANTZARIA

Dantzari ekin zionetik hainbat urte igaro ondoren, eta zenbait konpainian aritu ostean, “PoP” ikuskizuna sortu du, bere fantasietatik abiatuta

**Alba Cabrera Jauregi URNIETA**  
Oso gazte zinelarik irten zinen Beasainetik.

19 urte nituela joan nintzen Madril aldera. Lehenik, interpretazioa ikasten hasi nintzen. Alabaina, urte luze utzi nuen kirolean, igeriketan oso sartuta egon nintzelako. Horregatik ez nintzen esparru artistikoan trebatu, harik eta Madrilera iritsi arte; bokaziozkoa nuen gehiago. Baina adinean aurrera egin ahala, eta 18 urterekin Londresetik itzuli ostean, zer egin nahi

nuen pentsatzen hasi nintzen, eta aukera hori plazaratu zitzaidan. Interpretazioa egiten hasi nintzen eta bertatik ailegatu nintzen dantzara. Alegia, Madrilan izan zen nire lehen harremana dantzarekin.

**“POP” IKUSKIZUNA TAULARATUKO DU SAROBEN, MARTXOAREN 6AN 19:00ETAN HASITA**

**Gogoratzen al duzu nolakoa izan zen zure lehen harremana dantza garaikidearekin?**

Gogoan dut interpretazioa ikasten ari nintzela, eta ikasgaietako bat zela dantza. Ziztu bizian harrapatu nion dinamikari, erraztasun handia nuen. Hala, irakasleak komentatu zidan ongi mugitzen nintzela, eta gomen datu zidan klase gehiago hartzea, kurrikuluma osatze aldera; zeren hobea baita dantzari ona den aktorea izatea. Ondorioz, aparteko orduak egiten hasi nintzen,

hurrengo urtera begira, ehuneko ehunean dantzara bideratzeko nere jarduna.

**Garai hartako Beñatek pentsatzen al zuen hainbat urteren ostean oraindik ere dantzaz gozatzen jarraituko zuenik?**

Ez, jakina ezetz. Baina orain urtebete ere ez. Izan ere, orain prestatzen ari naizen proiektua asko fantaseatzen nuen ideia bat zen, baina askotan izan dut aukera egiteko eta azkenean ez dut sekula ezer egin ideia horrekin. Beraz, ez nuen egingarri ikusten. Orain ere harrituta nago proiektua egituratzen ari naizelako.

**Hainbat konpainian ibili zara. Bai Euskal Herrian, bai bertatik kanpo.**

Carmen Roche eta Madrid 47n ekin nion nire dantzari-ibilbideari. Kontserbatorioan sartu ahal izateko oinarria behar nuen; beraz, lehen urtean libreki prestatzen aritu nintzen, eskola pribatuetan, eta, hurrengo urtean, kontserbatorioan sartu nintzen. Bertan, bi urte egin nituen (berrez, sei dira), eta Donostiara etorri nintzen Dantzaz konpainian lan egiteko.

**Zein nolako garrantzia dute Dantzaz gisako egitasmoek?**

Oso ondo dago Dantzaz. Ni iritsi nintzenean oso heldugabe nengoen, hiru urte baineramatzen soilik dantza munduan. Teknika handia hartu nuen; dantza ikastea ez ezik, lan mundura begira prestatzeko aukera ere ematen dizu. Izan ere, lanean hasi ahal izateko esperientzia eskatu ohi da, baina esperientzia eduki ahal izateko lanean hasi beharra daukazu. Beraz, oso aberasgarria da bitarteko hori izatea, ikasketa-prozesuaren eta konpainia profesional batean sartzearen arteko denboran.

**Sharon Fridmanen gidaritzapean ere egin duzu lan. Nazioartera salto egiteko beta eman dizu horrek?**

Donostian nengoela, Sharonek hirian egindako audiziora aurkeztu nintzen. Proiektu txiki horretan hartu nuen parte. Hori dela eta, aukera izan nuen aurretik prestuta zituen piezatan oholtza gainean aritzeko, baita bi produkzio berritan dantzatze-

**OTSAILAREN 26TIK AURRERA SARRERAK SALGAI JARRIKO DITUZTE SAROBEN LEIHATILAN**

ko ere. Horrek eta Dantzaz proiektuak eman didate aukera pixka bat nazioartera salto egiteko. Bi horiekin egin nituen Euskal Herrikan kanpo ikuskizun gehien. **“PoP” proiektua duzu esku artean orain. Zergatik izenburu hori?**

Lehendabizi, “Popunk” izenburua ipintzeko asmoa nuen: ez oso punk pop izateko, ez oso pop punk izateko. Dualitate hori. Baina, ondoren, “PoP” hobea iruditu zitzaidan: pop hitzak popularrak esan nahi du, eta erreferentzia egiten dio pop musikari. Horrez gain, pop ere bada eztanda baten soinua, edo palomita lehertzen denean ateratzen den soinua. Beraz, ongi erreperatuta bizi dudana momentuari eta proiektuak egiteko arrazoei, ideia ona iruditu zitzaidan izenburu hori jartzea. Gainera, oso gustuko du hitzaren sonoritatea, eta uste dut proposamena bera oso pop-a dela. Alegia, ez dauka sakontasun handirik, oso egitura erraza du.

**“PoP” eztanda bat izan daitekeela diozu. Behar bada zure pop-a al da?**

Jakina. Nahiz eta noizbait tokatu zaidan ikuskizun bat sortzea, lehen aldia da nik nere burua jartzen dudana nik nahi dudana lekuan. Eta eroso sentitzen naiz, nahiz eta, normala den bezala, segurtasun eza sentitu. Gogotsu nago.

**Lehen aldia al da zure sorkuntza azaleratu eta zuk zeuk taularatzen duzuna?**

Bai. Dantzatik apur bat urrundu nintzen pertsonalki beste espazio bat behar nuelako, eta behin espazio hori antolatuta tokatu da ikuskizuna sortzea. Une egokia dela uste dut. Erabaki nuenetik egingo nuela saiatu naiz buru-belarri horretan aritzen, alde batera ez uzten. **Orduerdi inguruko pieza da. Zer ikusiko du bertan publikoak?**

Zaila da horri erantzutea. Nire alegiazko mundua irudikatzen du “PoP” ikuskizunak: lumak daude, koloreak... **Honela laburtu duzu emanaldiaren muina: Odoletik azalera. Hazi baten ernamuina. Fantasia errealtate bailitza. Argitasunetik iluntasunera ezerezaraino.**

Horrela laburtu dut, bai. Gauza asko daude hitz horien atzean ezkatututa. Ez da erraza azaltzen, ez delako ezer zehatza, jakina. Publikoari utzi nahi diot bere irudimena erabiltzen, beren bizipenetatik ikusten.

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 25

**ANDOAIN Erakusketa**

"Jainkozaletasuna eta erlijio errituak".  
Azken eguna: Otsailak 27. Bastero.

**URNIETA Erakusketa**

Udal egutegiko argazki-bilduma  
ikusgai dago Lekaion.  
Otsailean zehar. Lekaio.

**URNIETA Lehiaketa**

Antia literatur lehiaketa. Dagoeneko  
irekita dago lanak aurkezteko epea.  
Haur, gazte eta helduen mailakoa da.  
Epea: Martxoak 12. Sarobe

**ANDOAIN Kontzertua**

Tenpora musika taldeak "Berrito  
asma nazazu" diskoa aurkeztuko du.  
19:00, Bastero. 12 euro.

## OSTIRALA 26

**ANDOAIN Elkarretaratzea**

Sare herritarra ekimenak antolatuta.  
19:00, Zumea plaza.

**ANDOAIN Kontzertua**

Piano Jaialdiaren aurrerapen  
kontzertua: Francisco Escudero  
Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoa.  
19:15, Bastero.

**ANDOAIN Dokumentala**

Joxe Lacalle argazkilariri buruz.  
18:30, Andoingo Gaztetxea.

## LARUNBATA 27

**ANDOAIN Piano Jaialdia**

Andoingo Piano Jaialdiaren edizio  
berria. Informazio osagarria 2-3.  
orrialdeetan.  
Egun osoan zehar, Bastero.

## IGANDEA 28

**ANDOAIN Piano Jaialdia**

Andoingo Piano Jaialdiaren edizio  
berria. Informazio osagarria 2-3.  
orrialdeetan.  
Goizez, Bastero.

**URNIETA Magia saioa**

Hodei Magoaren "Ezinezkoaren  
logika" magia ikuskizuna.  
17:30, Sarobe. 3 euro.



Babesa agertu duen herritar taldea, afitxa eskuetan.

**ANDOAIN Bakerako, konponbiderako, etxerako**

Sarek eta Etxerateg elkarretaratzea deitu dute, ostiral honetarako. Besteak beste, Axier Oiarzabal eta Ainhoa Ozaeta presoak gogoan hartu nahi dituzte, eta Ruben Gelbentzuren aurkako jazarpena ere ez dute ahaztu nahi: "Presoen eta senideen eskubideen defentsan indarrak batzeko unea da".  
Otsailak 26, ostirala. 19:00. Zumea plaza.



Hodei magoa. HIRUKA

**URNIETA Hodei magoaren ikuskizuna**

Ezinezko ihesak, hainbat zatitan moztzen diren gorputz atalak, asmaketa imajinaezinak, baita publiko osoak parte hartuko duen joku handia ere.  
Ezinezkoa: ezin daitekeena edo betetzeko zaila dena.  
Otsailak 28, igandea. 17:30. 3 euro. Sarobe.

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Mi niña**

Helduentzat.

Igandea, 28: 19:00.

Astelehena, 1: 19:00

Ikuslearen eguna.

**Los Croods2: Una nueva era**

Haurrentzat.


Igandea, 28: 16:30.

Saio bakarra.

**Ez, eskerrik asko!**

Dokumentala.

Marxoak 23: 19:00.



## SINOPSIS

**Mi niña**

**Zuzendaria, gidoilaria:** Lisa Azuelos. **Aktoreak:** Arnaud Valois, Sandrine Kiberlain, Yvan Attal, Patrick Chesnais. **Herrialdea:** Frantzia (2019). **Generoa:** Drama, komedia. **Iraupena:** 85 min.

## Etxea uztear den amaren alaba

Jadek hamazortzi urte bete ditu eta Kanada aldean jarraituko du, bere ikasketekin. Heloise Jaderen ama da, eta baditu beste bi seme-alaba gehiago. Jade protagonistaren irteera unea iritsi ahala, Heloise amaren estresak gorantz egingo du. Eta

etxea utziko duen alabarekin izandako une gogoangarriak etorriko zaizkio burura. Adituek "dramedia" deitzen diote zinema moeta honi. Alabaren askatasun gosea eta ama iraganari begira jartzeko joera uztartzen dira film osoan zehar.

## SINOPSIS

**Los Croods: Una nueva era**

**Zuzendaria:** Joel Crawford. **Herrialdea:** AEB (2020). **Generoa:** Marrazki bizidunak, abenturak. **Ekoizpena:** DreamWorks. **Iraupena:** 95 min.

## Saio bakarra, igande arratsaldean

Historiaurreko lehen familia etxe berri baten bila abiatzen da. Gogoko zuten txokoa aurkitu

dutenean, ezustekoa hartuko dute: Bada beste familia bat bertan bizi dena.



Oxkar Santamaria Usurbilgo zinegotzia, Urnietako Mikel Artolarekin batera. AIURRI

## Gidabaimena euskaraz egiteak saria dakar

Beterri-Buruntzako udalek azterketa teorikoa euskaraz gainditu dutenen artean 400 euroko sariak zozkatu dituzte

### Erredakzioa URNIETA

Andoain, Urnieta, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilgo udalak euskararen aldeko egitasmoa sustatzen ari dira. Bidelagun dituztem egitasmo horretan, eskualdeko autoeskolak. Bederatzi autoeskola daudenez, 400 euroko 9 sari banatu dituzte. Zozketa egin eta gero, hauek izan ziren irabazleak:

#### Andoain

Beñat Setien Iguaran. Aizpea Oria Irigoras.

#### Urnietak

Uxue Lizarazu Iceta.

#### Astigarraga

Olaia Lizeaga Otaño.

#### Hernani

Olatz Ollo Urnieta.

Uxue Mariñelarena Urbieta.

Nahia Cisneros Gomez.

#### Lasarte-Oria

Larraitz Izagirre Inza.

#### Usurbil

Mattin Aierbe Zubeldia.

Urte hauetan guztietan 1.114 pertsonak lortu dute gidabaimena euskaraz ateratzea. 2020an gorunzko joera eten egin zen, ziurrenik pandemiagatik.

### Lan asko egiteke daude, udalaz gaitzak erakundeetatik hasita

- Sektorea euskalduntzeko lan handia egin behar da oraindik:
- Terminologia bateratua sortzea.
  - Kalitatezko azterketa ereduak garatzea.
  - Aurrerapausoak azterketa teorikoan eman badira ere, azterketa praktikoan jarraipena izatea beharrezkoa da.
  - Baliabide teknologikoetan euskaraz erabiltzeko aukera bermatu beharra dago.
  - Udalez gaineko administrazioen apustu sendo baten beharra somatzen da.
  - Udalek ez dute alor honetan eskuhartze gehiagorako esku-menik.

## Elkarretaratzea deitu dute Andoainen, larunbaterako

Azken asteetako gertakariekin kezka agertu duen herritar talde batek egin du deialdia

### Erredakzioa ANDOAIN

Liskarrak eta ohikoak ez diren gertaerak bizi izan ziren Andoainen, otsailaren 14tik 21era. Horrek hainbat herrikideen kezka eragin du. Ekimen berria aurkeztu dute, eta andoaindarrei larunbatean Goikoplazara gerturatzeko dei egiten diete.

### Antolatzaileen oharra

"Andoaingo herrian azken hilabeteetan izandako gertakarien aurrean, herritarrok erantzun bat eman eta gure desadostasuna adierazten dugu. Onartezinak dira azken aldiari eman diren ekintza bortitzak eta hauek salatu nahi ditugu.

Hori gutxi balitz, honelako egoeren aurrean inongo neurri-

rik hartu ez denez, Andoaingo herritarrok elkartu eta egoera salatzeko beharra ikusten dugu, ekintza hauek duten larritasuna azpimarratuz, jasandako erasoek ez baitute gure herrian tokirik edukiko.

Ondorioz, egoera honi erantzun bat emateko asmoz, herritar guztiei deialdia luzatzen dizuegu: larunbata 27, eguerdiko 12:00etan Goikoplazan".

## ELKARRETARATZEA LARUNBAT HONETAN IZANGO DA, 12:00ETAN HASITA GOIKOPLAZAN

## "Espetxe barruan beste espetxe bat eraiki dute"

SAREk salatu duenez, "bertan behera utzi dira presoek eta senideen arteko komunikazioak eta bisitaldiak"

### Erredakzioa ANDOAIN

Sare presoek aldeko elkartzasun sareak salatu duenez, "Espainiako espetxeek ia hilabete darabate blindatuta eta komunikazio eta lekualdatze guztiak bertan behera utzi dituzte. Espainiako beste hamasei erakunderekin batera salatu dugun bezala, presoek eta haien inguruko es-

kubideen aurkako benetako erasoak da. Alarma-egoera ezarri zenetik urratzen dira presoek eskubideak; harrezkero, bertan behera utzi dira familiako komunikazioak eta bisitak mintzalekuan. Badira hilabete asko Frantziatik eta Espainiatik preso dauden zuzeneko senideak ikusten ez dituzten adingabeak".

## ZORION AGURRAK



### URNIETA

**Zorionak Urko**  
Otsailaren 27an 8 urte beteko dituzu dagoeneko. Ono pasa familiakin ta lagunekin. Muxu polo bat! Asko maite zaitugu.



### ANDOAIN

**Inge Azpiroz**  
Martxoaren 6an 11 urte beteko dituzu. Zorionak eta ondo pasa zure eguna etxeko guztien partez!

### www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Idatzi urtebetetze-eguna izen-abizenak, herria, eta nahi duzun testua. Doakoa da.

## TELEFONO ZENBAKIAK

### URNIETA

Udalzaindaria: 092 / 943 008 000.  
Ertzaintza: 943 538 840.

### ANDOAIN

Udalzaindaria: 943 300 819.  
Ertzaintza: 943 538 840.

### OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.  
Urnietak: 943 006 680.  
Larrialdiak: 943 461 111.  
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ANDOAIN

**Larunbata 27, igandea 28**  
Ansa: Ondarreta, 8.  
943 591 302. Andoain.

### URNIETA

**Larunbata 27, igandea 28**  
Odrozola: Idiazabal, 18.  
943 334 014. Urnieta.



Urnietako  
udala

**Outlet kalean ANDOAIN**  
Martxoak 5, ostirala

S2 SALKIN  
berlotik berlotu

ANDOAINGO UDALA

Andoaingo Udala logo and other local organization logos.



Sabaut 2015az geroztik familiarekin bizi da, Andoainen. AIURRI

# "Marokok Saharako lurren kolonizazioa sustatzen du"

**DADAI SABAUT** ANDOAINEN BIZI DEN MENDEBALDEKO SAHARAKO HERRIKIDEA Marokoren menpe bizi diren Saharako biztanleen erresistentzia kontatzen duen 'Fusilak edo pintadak' dokumentala eskainiko dute ostegun honetan, Basteron

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Dadai Sabaut Mendebaldeko Saharan jaio zen 1968an, Espainiaren kolonia zen garaian. 1976an Espainiak bazterrean utzi zuen lurralde hura, eta Marokori eta Mauritaniari euren lur zati handi bat okupatzeko aukera erraztu zien. Geroztik, sahararrak banatuta bizi dira Aljerian Tindufeko kanpalekuan, Marokok okupatutako lurretan nahiz erbestean. Horietako bat da Sabaut; 2015az geroztik familiarekin bizi da Andoainen.

**Indarkeriarik gabeko borroka gautatzeko hautua egin duten aktibisten jarduna ikusarazten du "Fusilak edo pintadak" dokumentalak.**

Milaka saharar bizi dira lurralde okupatuetan; 1976an lur zati hura okupatu zutenean askok ihes egin behar izan zuten, baina beste batzuk bertan geratu beste erremediorik ez zuten eduki. Zapalduak, lanean diskriminatuak, torturatuak, atxilotuak, erailak... izan dira baina modu baketsuan erresistentziari eusten diote, nahiz eta beldurrez bizi.

Maroko aspalditxotik kolonizazio politika sustatzen ari da; Israelek Palestinan eta Txinak Tibetean nola, halaxe. Bada, gaur egun, proportzioan, askoz ere gehiago dira marokorrek sahararrak baino.

**"FUSILAK EDO PINTADAK" DOKUMENTALA BASTERON, OSTEGUN HONETAN 18:30EAN**

Gainera, Marokoko ejertzitoaren eta polizien zapalkuntzaz gain, sahararrek kolono askoren erasoak pairatzen dituzte.

2010ean, milaka sahararrek El Aaiun hiritik gertu kanpaleku baketsua eraiki zuten, esku-bide sozial eta ekonomikoak eskatuz. Marokoko ejertzitoak zapaldu egin zuen ekimena, eta geroztik hainbat preso dauzkate 30 urteko zigorra ezarrita.

Bandera sahararra kalean erakuste hutsagatik jipoitu egiten dute edo kartzelan sartu, egin kontu. Gauzak horrela, borroka moten inguruan irudimena lantzen joan dira urtetan, eta esate batera, pintadez gain, banderak globoetara lotu eta zerura bidaltzen dituzte.

**Sare sozialek garrantzia hartu dute injustizia bistartzeko orduan...**

Okupazioko lehen urtetan presoak torturatu edo eta erail eta hobi komunetan lurperatzen zituztenean, ekintza bortitz horiek ezkutuan egiten zituzten; ez dago krimen horiek erakusten duen irudirik. Egun, ordea, sare sozialen erabilera armarik eraginkorrena bilakatu da Marokok ezarritako siltasun mediatikoa gairatu eta giza eskubideen urraketen salaketa nazioartean zabaltzeko orduan.

**Gerra hotsak piztu dira azken hilabeteetan Sahara eta Marokoren artean.**

Fronte Polisarioak iazko urrian hautsitzat jo zuen Marokorekin 1991n sinatu zuen su-etena. Izan ere, aurreko egunetako gertakizunak kontuan hartu behar dira: saharar talde batek protesta egin zuen Sahara eta Mauritaniaren arteko mugan dagoen Guerguerat bost kilometroko eremu desmilitarizatuan. Errepidea trabatzea erabaki zuten, Marokok errepide hori Saharako herrialdeari lapurtutako baliabide naturalak Afrika aldera garraitzeko erabiltzen zituela salatuz. Rabateko gobernuak militarrek hara bidaltzea erabaki zuen, protesta desgiteko. Horrela, eremu liberatuan sartu egin ziren. Hori zela-eta, Fronte Polisarioak hautsitzat eman zuen 1991eko su-etena. Egunero borrokaldi militarrek gertatzen ari dira, baina ez zaigu albiste askorik iristen ari.

**Nola hartu dute Saharako herritarrek Fronte Polisarioaren gerrarako erabaki hori?**

30 urtetan irtenbide baten zain egon ostean, etsipena da nagusi,

eta tamalez, ikusi dute beste irtenbiderik ez dela geratzen. Belaunaldi gazteenak agertzen dira kontzientziatuenak bide horren alde, baina 1976ko gerran parte hartu zuten nagusi asko ere borrokari heltzeko "gazte" sentitzen dira. Israel, AEB eta beste potentzien laguntza militarra daukan Marokorekin gerra batean murgiltzeak sakrifizio pertsonal handia eskatu arren, bi analisi egiten dituzte gehienek, zein baino zein ezkorragoak: nazioarteko komunitateak oraingo egoera betikotzea nahi duela, eta, gatazkak beste bost-hamar urte irautean badu Sahara herri gisa desagertu egingo dela.

**Urteak daramazue Nazio Batuen Erakundeak agindutako autodeterminazioarako erreferendumaren zain.**

Baliteke Saharan islatzea nazioarteko komunitatean funtzionatzen duen hipokrisia eredurik mingarriena. Tristezia eragiten du hainbat gobernuen ahotik entzutea demokrazia, askatasuna, justizia, giza eskubideen defentsa... Interes ekonomikoek eta geostrategikoen mugitzen dute mundua, eta hori aitortze-ara ausartu beharko lirarteke, behingoz. Maroko bikain mugitzen da eskema horretan, eta hainbat pieza erabiltzen ditu bere interesen alde, presioa egiteko nazioarte mailan: Afrikatik datorren emigrazioaren fenomeno, Ceuta eta Melilla, baliabide naturalen ustiaketa, drogen trafikoa... Gobernuak ez ezik, influentzia handiko jendea erosten ere ondotox daki, eta penaz esan behar dut, Gonzalez lehen eta Zapatero egun, horretan erori direla. Alderdi gehienek gure aldeko hitz politikak eta "zuekin gaude" adierazpenak plazaratzen dituzte, baina gero agintza iristen direnean, denek ere berdin jokatzeko dute. Oraingo gobernuak progresista dela diote, baina ez da urrunduko jokabide horretatik.

Hori bai, sahararrok ongi ikasi dugu bereizten gobernuak eta herritarrek. Badakigu Estatu espainiarrean herritar askok gertutik eta kezka bizi dutela gure herriaren zapalkuntza. Elkartasuna adierazten digute era askotara: haurrak udan hartuz, elikagaiak bidaliz, ikastetxe eta ospitaleak eraikitzen lagunduz, udalerriri eta erakunde ordezkariei bixitak eginez... Bihotz-bihotzez estimatzen dugu esku zabaltasun hori.